

JARDUNALDIA ▶



Peace Boat-eko partaideak Juan Felix Arejita eta Maria Oiangurenekin batera, udaletxea aurrean. M. ORUE

Elkartruke topaketa egin du Japoniarekin Gernika Gogoratuze

Peace Boat Gobernu Kanpoko Erakundeko 50 kide etorri dira, hemengo historia eta esperientziak jasotzeko asmoz

MAITE ORUE

Peace Boat izeneko Gobernu Kanpoko Erakundearen zenbait partaide izan ziren atzo Gernika-Lumon. Hain zuzen ere, *Berradiskidetze horizontea Euskal Herrian* lelopean, Gernika Gogoratuze antolatutako elkartruke jardunaldi batean parte hartzeri etorri ziren. 10:15ean egin zieten harrera


ekitaldia udaletxean. Osoko Bilkuren aretoan batuta, ongi-torria eman zien hirugarren alkateorde den Juan Felix Arejita. Peace Boat-eko ordezkari batek hartu zuen hitza ondoren, eta gernikarroi eskerrak emanez, beraien proiektuaren berri eman zuen: «Munduan al-daketa sozial eta politikoak ematea lortu nahi dugu gure lanarekin».

Bestetik, Gernika-Lumok jasandako bonbardaketa ere aipatu zuen. «Bigarren mundu gudaren aurrekaria izan zen hemen gertatutakoa. Hiroshima eta Nagasakiren bonbardaketarekin eman zitzaion bukaera guda honi».

Jardunaldien helburua

Egun osorako prestatutako egitarauan, ikuspuntu historikoa eta zenbait talderen lana aurkeztu nahi izan zituen Gernika Gogoratuze. Horrela, bonbardaketaren zenbait lekukorekin elkartu ziren udaletxe-ko harrera egin ondoren. Bestetik, Lokarriekin, Bakearen Aldeko Koordinakundearekin eta Gernika Gogoratuzeekin batera, euskal gatazkaren inguruko mahai-inguruan parte hartu zuten. Bakearen Museoa eta Juntetxea ere bisitatu zituzten.

Hegazkinekin bonbardatutako herrien arteko loturak sortzea izan da elkartruke jardunaldien helburua. Beste alde batetik, «euskal gatazkaren inguruan, eraikuntzaren eta berradiskidetzearen alde zenbait taldek egindako lana ezagutarazi» nahi izan dute, kooperaziorako dinamikak errazten diren bitartean.



Peace Boat itsasontzia. HITZA

politiko kanpainak, esate baterako.

Ekintzarik esanguratsuenak itsasontzian antolatzen ditu Peace Boat-ek, «espazio neutral» bat sortzeko. Beraien arabera, bidaia hezitzaile horien bitartez, «mugak gainditu egiten dira, eta kooperazio eta elkarriketa harremanak sortu daitezke itsaso zabalean edota portu ezberdinetan». ◀

Ekintzak itsasontzietan

1983an sortu zuten Peace Boat. Gerraren esperientziak ezagutzeko asmoz, ikasle talde batek Asiako toki ezberdinak bisitatu zituen itsasontzi batean. Gaur egun, irabazi-asmorik gabeko Gobernu Kanpoko Erakundea da, eta Japonian du egoitza nagusia. «Munduan zehar bakearen kultura zabaltzeko» nahi du erakundeak. Besteak beste, bakea, giza eskubideak, bidezkoa eta jasangarria den garapena eta ingurugiroarekiko errespetua lantzen ditu.

Helburuok lortzeko bidean, hezkuntza-programak antolatzen ditu. Turismo erantzulea, kooperazio proiektuak, sensibilizazio eta presio sozio-

DIRU-LAGUNTZAK ▶

Garapenerako ekintzak sustatzeko laguntzak

Kooperazio proiektuetarako diru-laguntza eskaerak Udalean aurkeztu behar dira

M. ORUE

Hirugarren munduan kooperazio proiektuak burutzeko eskaerak aurkezteko epea zabaldu berri du Udalak. Ekainaren 9a baino lehen aurkeztu behar dira formularioak erre-gistro orokorreko lehiatilan.

Garapen-bidean dauden herrialdeetan egingo diren ekintzak diruz laguntzea da deialdiaren helburua; eta horretarako, 70.000 euro gorde dituzte. Kopuruaren % 10a, Euskal Fondoak aurkeztuko dituen proiektuetarako izango da. Bestetik, Udalak Saharako herria laguntzeko konpromisoa hartu duenez gero, 6.000 euro gordeko ditu Saharako 12 umeren egonaldirako.

Diru-laguntzak jaso ahal izateko, legez eraturako Gobernu Kanpoko Erakundea izan beharko da eskatzailea. Horrez gain, deialdiaren helburuekin egin beharko du bat bere jarduerak. Hau da, bere helburuetako bat garapenerako ekintzak egitea izan behar da, derrigorrez. Bete beharreko azken baldintzak, helburuak betetzeko azpiegitura nahikoa izatea eta lankidetzaren arloan duen esperientzia egiaztatzea dira.

www.gernika-lumo.net webgunean kontsultatu daitezke, besteak beste, oinarri guzti horiek. Eskaera egiteko formularioak ere webgune horretan bertan eskuratu daitezke.

KOMUNIKABIDEAK ▶



HITZAren enpresako elkartean sartu da Gernikako institutua

M. Orue ▶ Eskualdeko eragileek osatzen duten Busturialdeko Berriak Kultur Elkartean barruan sartu da Bigarren Hezkuntzako Institutua. Argazkian, Fernando Garatea (ikasketa burua), Lourdes Sanseverino (Gurasoen Elkarteko presidentea) eta Maria Carmen Alzibar ageri dira. Garatearen esanetan, «HITZA proiektua babestu beharrekoa da, euskararen normalizazioan aurrerapauso nabarmena baita. Ume txiki bat bezalakoa da. Irakurtzeaz ume txiki hori laztantzen dugu, baina jaten ere eman behar zaio. HITZA-ren barruan sartzea izan da guretzat ume txiki horri jaten emateko bidea; diruz laguntzea, alegia». MAITE ORUE